

Jaiegunetan ez dugu erosketarik egiten, eta zuk?

Igande eta jai-egunetan irekitzea bilatzen dutenek aldeko iritzia sustatu nahi dute jendearengan; eta horretarako, oinarrizko ideia batzuk, bakunak bezain itsaskorrak, errepikatzen dituzte atertu gabe, ea denok azkenean igande eta jai-egunetan dendak irekitzea zerbait naturala eta onuragarria dela uste dugun. Hala ere, darabiltzaten argudioetatik bat ere ez da egiazkoa:

1.- EKONOMIA-JARDUERA EZ DA AREAGOTUKO: Kontsumoa ez da hazten, lekuz eta egunez aldatzen da. Ordu-tegi zabalagoa izateagatik ez du inork gehiago erosiko.

2.- EZ DA ENPLEGURIK SORTUKO: Eta sortzekotan, saltoki handietan sortuko zen; baina denda txikietan enplegua galtzearen kontura, eta beti ere enplegu kopuruaren eta kalitatearen kaltetan. Saltoki handietan ez dira aplikatzen Nafarroako hitzarmenak, Saltoki Handietako Estatu Hitzarmena baizik, lan-baldintza okerragoak dituena. Gainera, sortzen den enplegua partzialagoa eta prekarioagoa da.

3.- EZ DIE ASKATASUN HANDIAGORIK EMATEN KONTSUMITZAILEEI: Eskaintza murriztuz joan da, eta enpresa gutxi batzuen eskuetan geratuko, horiek gero eta hartuago izanen dute merkatua, eta bateratu eta berdinduko dute azkenean. Gainera, nahi ez den beste ondorio bat ere ekarriko du: hiriak, herriak eta auzuneak hustu egingo dira dendez eta jendez.

Askatasun-ideia hori indartze aldera, eskubide berriak asmatu dituzte: "igandean erosteko eskubidea". Benetakoa ez den eskubide bati lehentasuna ematen diote, benetako eskubideen aitzin: lan duina izateko eskubidea, atsedena hartzeko eskubidea, lan-bizitza eta norberarena uztartzeko eskubidea. Alegiazko eskubide bati eusteko, betiko lan-eskubideak alde batera utzi nahi dituzte.

4.- KONTSUMITZAILEEK EZ DUTE HORI ESKATU: Nafarroako kontsumitzaileen %20ak baino gutxiagok eskatzen zuen irekierak ugaltzeko, urtean 4 jai-egunetan irekitzen zenean. Orain, astean 6 egunetan eta egunean 15 orduetan egin daitezke erosketak; behar beste denbora badago, beraz.

5.- LANGILEAK EZ DOAZ LANERA BORONDATEZ: Soldata txikiak eta lanaldi partzialeko kontratuak ohikoak diren sektore batean, nahita nahasten dira borondatea eta beharrezana. Gainera, enpresetan gero eta gehiago parekatzen dira jai-egunetako lana eta egun arruntekoa edo derrigorrezkoa.

Krisi honetan gobernuek bakan batzuen mesedetan bakarrik egin dute. Merkataritzan botere ekonomikoak ordezkatzeko dituztenak saltoki handi multinazionalak dira. Eta horien aitzinean gainerako guztiok gaude (langileak, kontsumitzaileak eta toki-esparruko merkataritzako enpresari txikiak). Sinesgaitza dirudien arren, Nafarroako Gobernuak saltoki handiei ongi etorria ematen dien bitartean, denda txikien aldeko zabalkunde-kanpaina formalak egiten ditu.

Sektoreko langileen mobilizazioa ezinbestekoa bada ere, hori besterik gabe ez da nahikoa. Igande eta jai-egunetan ez irekitzeko borroka benetan irabaziko dugu enpresek ireki nahi izateari uzten diotenean, egun horietan dendan inor gutxi sartuko dela jakinda. Ordukoa garaipen kolektiboa izango da, sektorean lan egiten dutenena, langileria osoarena, eta gizarte-eredu jakin baten alde gaudenona, kontsumitzaile hutsak edo VISA hankadunak baino herritarrak izan nahi dugunona.

Gabon zoriontsuak...

Baina denontzako!



ELA
EUSKAL SINDIKATUA

No hacemos compras en festivos, ¿Y tú?

Quienes defienden las aperturas del comercio en Domingo y Festivos buscan ir generando entre la gente una opinión favorable a estas aperturas, y para ello establecen una serie de ideas básicas, sencillas y que repiten machaconamente para hacernos pensar que abrir los Domingos y Festivos es algo natural y positivo para todos y todas. Sin embargo, ninguno de estos argumentos son ciertos:

1.- NO AUMENTA LA ACTIVIDAD ECONÓMICA: El consumo no crece sino que se desplaza. Nadie compra más por tener un horario más amplio.

2.- NO CREA EMPLEO: En todo caso, sería en las grandes superficies, pero a costa de la pérdida del empleo en el pequeño comercio, lo que iría en detrimento no sólo de la cantidad, sino de la calidad del mismo. En estas grandes empresas no se aplican los convenios de Navarra, sino el convenio estatal de Grandes Superficies, con peores condiciones de trabajo. Igualmente el empleo que se crea es más parcial y más precario.

3.- NO DA UNA MAYOR LIBERTAD A LOS CONSUMIDORES: Se va reduciendo la oferta a unas pocas grandes firmas que van copando cada vez más el mercado, y que lo van unificando y homogeneizando. Además, se produce un segundo efecto indeseable, el de la desertización de los núcleos urbanos, barrios y pueblos.

Para reforzar esta idea de libertad se crean nuevos derechos "El derecho a comprar en domingo", un derecho que no existe frente a derechos reales: el derecho a un trabajo digno, el derecho al descanso o el derecho a la conciliación de la vida laboral y personal. Para sostener un derecho ficticio se atacan derechos laborales históricos.

4.- NO HAY DEMANDA ENTRE LOS CONSUMIDORES: En Navarra menos del 20% de los consumidores reclamaban más aperturas cuando se abría 4 festivos al año. Ahora, existe la posibilidad de comprar 6 días a la semana, en una horquilla de 15 horas al día, tiempo más que suficiente.

5.- LOS TRABAJADORES/AS NO SON VOLUNTARIO/AS: En un sector donde los bajos salarios y los contratos a tiempo parcial son la norma, se confunde intencionadamente voluntariedad con necesidad. Además, cada vez más las empresas entienden el trabajo en festivos como días normales y obligatorios.

Durante esta crisis, los diferentes gobiernos han legislado en favor de los intereses de unos pocos. En el comercio los poderes económicos están representados por las grandes superficies de carácter multinacional. Y frente a ellos el resto (trabajadores/as, consumidores y también pequeños empresarios del comercio de ámbito local principalmente). No deja de ser una broma que mientras se pone alfombra roja a la instalación de grandes superficies, se realicen desde el Gobierno de Navarra campañas de apoyo formal al pequeño comercio.

Es imprescindible la movilización de los y las trabajadoras del sector. Pero esto sólo no es suficiente. De verdad ganaremos la batalla a las aperturas en Domingos y Festivos el día que las empresas dejen de querer abrir, pero porque sepan que aunque lo hagan, nadie va a entrar a la tienda. Y será una victoria colectiva, de quienes trabajan en el sector, de la clase trabajadora en su conjunto y de una sociedad que defiende un modelo en el que seamos algo más que una VISA con patas, un modelo en el que seamos ciudadanos y no consumidores.



*Feliz Navidad...
¡Pero para tod@s!*

ELA
EUSKAL SINDIKATUA